



Olarteko San Bartolome eliza (Orozko)

Eraikina

Landa-tenplu xumea da, ospe handia daukana. Isolatuta dagoen arren, erabiltzen duten auzokideak bizi diren gunetik hurbil aurki dezakegu. Harri-hormaz dago eraikita, eta errektangulu erako oin-planoa osatzen du nabeak, estuagoa den buruko alde lauki batekin. Gangen mailan bi giro ezberdinekin lotuta daude tarte horiek eta esan genezake arotzia-aukera hau dela edo, hobeto esanda, izan zela, eraikin honen ezaugarriak erakargarriena.

Egia esan, buruko aldearen sabai moduan lau puntadun eta bost gakodun izarrak dituen gurutzeriadun ganga dago, gehi beste lau estekailu, bai ardatzaren norabidean eta zeharka. Txit diseinu kultura, baina egurrez egina. Elizak jasan duen eraberritze modernoan galdu izan diren marrazki margotuak zeuden plementoetan. Ahur-ikuspegitik begiraturiko itsasontzi baten brankaren antzeko itxura dauka orain nabeak, aurreko aldetik abiatuta atzeraino zeharkatzen duen bizkarrezur batekin, eta berorren euskarri, habe haren presioa mentsulen gainean pausatzen duten zazpi atalez osaturiko saila. Gaur egun, haragirik gabeko saihsak ematen duen eta lehen kanoi baten gangarena egiten zuen egitura horretan zehar, teilatupean ikus daiteke, zuriz margotuta, ganga bera osatzen zuen oholza kendu egin delako bertatik eta horrek teilatuak berak eragin zitzakeen eragozpenetatik begiratzen zuen. Jatorrizko asmo hori ezin igar daiteke, ordea, gaur egun.

Leihoei dagokienean, buruko aldean daudenak dira, puntu eta guzti, interesgarrienak. Bertan ere badaude hiru bao, gezi-leihoak bezain txikituak, itsutuak eta euretariko bat, bikaina, buruko aldean agertu zen erretaula kendu zutenean. Koruan ere beste bi daude, eta euretariko bat asentudun bao ohikoa da.

Elizarako sarbide erabilgarri bat dago, eguerdi aldera ematen duen horman dagoena, erdi-puntukoa eta iraulita dauden enbor-piramide erako kapitela dituzten ukondodun zutabetxoekin gainean tolestuta dauden bi arkurekin, hosto lau handiez eginiko hostotzan landurikoak. Teorian nagusia dena oinetara dago eta puntudun ale ederra da, abaniko gisa antolaturiko dobelekin. Beraren kanpoko aldea aberasteko, aldedun mentsulatxoekin artean arras nahastuta gertatzen den soingaina dauka. Oso bakunak diren lau gizairudien

Elizaren ataria dugu beraren ospea hedatzen lagundu duten elementuetarik beste bat. Oinak harrizko hesian eta eguerdiaren eta oinen aldean, elizako hormetan jartzen dituzten oin artezdun teilapez eginiko formula da. Enkotxatua da interesgarriena, errekarri txikiz eginiko karrajua, geometria-irudi soilak eginez. Alderdi batean, berriz, antzinako harlauzak daude.

Erromaniko berantiarreko edo inertziako lana ematen du eraikin honek, XIII. mendekoa, eta jatorrizko hartatik alboko atea besterik ez da geratzen. 1510. urtearen inguruan, jatorrizko eliza hura ia osorik berregin zen: perimetroa osatzen zuen hormaren zati bat, puntudun sarrera, gangak, koruko leihoa eta abar. Deskribatu ditugun ataletatik modernoan, atariak hain zuzen, XVII. mendeko data dauka.

Olarteren interesa nabea estaltzeko erabilitako formularen zetzan, izan ere, Bizkaian bakarra izan ez arren, berezi samarra zelako eta molde erabat herrikoian egina, Zaloakoa eta Goikurikoaren antzeko aukera hartuta honako honetan ere. Eta halaxe errespetatu beharko zuten, baina bestela jokatu zelarik, gaurko egunean damutu besterik ez zaigu geratzen.

Altzariak

Eraberritzea egitean, aurretik eraman zuten presbiterioaren buru zen erretaula barrokoa baina interes handiko bi elementuk bertan diraute oraindik. Euretariko bat Errukiaren erliebea da, egurrez egina, eta Beaugrantar eskulturagileek XVI. mendeko bigarren laurdenean Bilbon ezarrita eduki zuten tailerlean eginiko lanen tankerakoa, kalitate handiko adierazpen-gaitasundun Berpizkundea.

Dena den, Olarten gehien nabarmentzen dena Artzainen Agurtzane irudikatuz dagoen triptiko margotua da, barruko eta kanpoko aldetik margotuta dauden ateez zerratzen dutena. Eszena horretako irudiak daude bertan eta osagarriak diren beste batzuk ere bai: Ama Birjinaren jaiotza, Jasone, Deikundea eta Aurkezpena, keinu dotoreekin, eta arkitektura klasikoek markoa emanda. Bizkaiko margo errenazentista guztietatik onenetako dugu berau, eta Flandriatik ekarria dela esango genuke, estiloari begiratzuz gero.

Testua: José Ángel Barrio Loza.



Olarteko San Bartolome eliza
Orozko. (*Olarte-ibarra auzunea*).

Nola heldu:

Orozkoko hirigunetik irten behar da, Artearantz. Kilometro batzuk egindakoan Ibarra auzora iritsiko gara. Auzo horretara sartzeko bidea hartu eta berehala, ezkerretara doan eta "Olarte-Albitzu" kartela daukan bidea hartuko dugu, bertatik igoko garelarik elizaraino.

Bisiten ordutegia:

Itxita egoten da, eta meza emateko zabalitzen dute.

Inguruko beste leku interesgarri batzuk:

- (*Ibarra, Orozko*)
 - Ibarako Komentua
- (*Zalaoa, Orozko*)
 - Zaloako Andra Mari basiliza.
- (*Orozko*)
 - Zalaoa eta Urigoitiko baserri-multzoak.
- (*Aranguren, Orozko*)
 - Arangurenko dorrea.
- (*Artea*)
 - Elexabetiako San Migel eliza.